

## SANTA AGEDA BAKION

Ona emen Bakion batu doguzan Santa Ageda bertsoak:

### SANTA AGEDA

Santa Ageda, Ageda.  
Biar da Santa Ageda,  
biar da Santa Ageda eta  
gaur aren bezpera gaua (birritan)

Santa Ageda bezpera dogu  
Euskalerriko eguna,  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua doguna. (birritan)

Aintza ta aintza  
Agate Deunari

EUP!!

### ACATE DEUNA

Aintzaldu daigun Agate Deuna  
biar da ba Deun Agate  
Etxe onetan zorion utsa  
betiko euk(ik)o al dabe.

Deun Agatena batzeko gatoz  
aurten be igazko berbera.  
Igaz lez artu gagizuz eta  
zabaldu zeuen sakelak.

Alkate jaunak agindu deusku:  
bakean ibil gaitzean.  
Bakean gabiltz, bakean eta  
ganean  
Jaungoikoaren legean.

Eskerrik asko jendea,  
bizi zaitze bakean.  
Gero zeruan topa gaitzean  
Agedaregaz batera.

EUP!!

### SANTA AGEDA (I)

Santa Ageda, Ageda.  
gure martiri maitea  
Etxe oneri emon eiozuz  
zoriona ta bakea

Mutil gazteak gara gu.  
bakiotarrak ganera  
Txiro-gaixoak poztuteko da  
gaurko gure eskaria

Mendi tontorr(e)an edurra,  
errekaldean leizarra.  
Etxe onetako nagusi jaunak  
urregorritz dau bizarra.

Eskerrik asko jendea.  
bizi zaitze bakean.  
Gero zeruan topa gaitzean  
Agedaregaz batera.

EUP!!

### SANTA AGEDA (II)

Santa Ageda, Ageda  
gure martiri maitea.  
Etxe oneri emon eiozuz  
zoriona ta bakea.

Santa Ageda, Ageda.  
eskaten deutsut grazia.  
Zeure bizitza abestuteko  
erruki dadin jendea.

Zenbat sufritu zenduan  
eriotz itzalgarrian,  
zeure gorputza kristal  
narraztatu ebenean.

Eriotz eder-ederra  
euki zenduan Ageda.  
Zeruko atea zabaldurikan  
artuko zendu(a)n bakea.

Eskerrik asko jendea,  
bizi zaitze bakean.  
Gero zeruan topa gaitzean  
Agedaregaz batera.

Beste bertso batzuk:

Bedeinkatua izan dadila  
etxe onetako jendea.  
Pobre ta umilde dabilan(ar)entzat  
badozu borondatea.

Oles. oles ateetan.  
Nor dabil ordu onetan?  
Bakioko jende gaztea  
bazterrak inkomodetan.

Ortxe goien otea,  
auntzak jan dau botea.  
Urregorrik plagaurik dago  
Maritxu zure dotea.

Emongo ba(do)zu, emoizu.  
Bestela, ezetz esaizu.  
Atean otzak ilten egoteko  
amak ez gaitu bialdu.

Atso mondrongo-mondrongo.  
Ik ez dona asko emongo.  
Ik emoten donan limosneagaz  
ez jonagu asko edango.

INIAKI MARTIARTU

### "OTTO PETTE" ANJEL, LERTXUNDI ALBERDANIA EDITORIALA 458 ORRIALDE

### ERITXIA

Liburu onetan Erdi Aroko zaldun baten istorioa, Otto Pe-  
tterenena, kontatzen da. Zelan erregearen alboan matxinoen  
kontra borrokatu eban, eta zelan matxinoen buruz zan Erro-  
dalen atzetik ibili zan. Jazokera guztiak izurrite baltzaren  
sasoiaren kokatzen dira.

Nire ustez, liburu au oso aspergarria da, batez be leenengo  
kapituluetan. Istorioan bein sartu ezkerro (benetan, gauza  
gatxa!), gustorago irakurri neban. Euskera aldetik, naiko astu-  
na iruditu jat.

Geien gustatu jatazanak izurriteari buruzko azalpenak izan  
dira, eta gitxien amaicra, oso aspergarria dalako.

ZIORTZA GARAI